años

# el mundo y los derechos humanos

## 10-14 noviembre 2025
## muestra de cine

en **golem baiona**

DL NA 2248-2025

DISEÑO: CARMEN ZUDAIRE

Fundación IPES Fundazioa

golem

Fundación FELIPE RINALDI

Mugarik Gabe Nafarroa
ONG de Cooperación con el Sur

SUBVENCIONAN / DIRUZ LAGUNDU DUTE

Gobierno de Navarra
Nafarroako Gobernua

Ayuntamiento de Pamplona | Iruñeko Udala

# SESIONES EDUCATIVAS MATINALES

***Para alumnado de Enseñanza Media***

Las sesiones consisten en la **proyección de películas** para introducir la temática y **generar un debate con el alumnado** a través de la exposición de las personas invitadas para la sesión.

**Todas las sesiones serán de 9:15h a 11:45h**



**LUNES 10 NOVIEMBRE**

## LA VOZ DE HIND

***Kaouther Ben Hania (Túnez-Francia, 89'. 2025)***

29 de enero de 2024. Los voluntarios de la Media Luna Roja reciben una llamada de emergencia. Una niña de 6 años está atrapada en un coche bajo fuego en Gaza, suplicando ser rescatada. Mientras intentan mantenerla en la línea, hacen todo lo posible por enviarle una ambulancia. Su nombre, **Hind Rajab**.

### INTERVIENE EN EL COLOQUIO

**LIDÓN SORIANO**

Licenciada y Doctora en Ciencias de la Educación Física y el Deporte, también tiene los grados de Fisioterapia, Magisterio y Enfermería, carrera en la que, además, es profesora de Emergencias Sanitarias en la escuela sanitaria de Navarra. Lleva más de 20 años compaginando su tarea docente, asistencial e investigadora con su actividad solidaria, colaborando con una ONG de salud en Palestina y ha coordinado 17 delegaciones tanto a los territorios palestinos ocupados como a Israel, teniendo un amplísimo conocimiento del conflicto tanto en el plano académico como vivencial.

## MARTES 11 NOVIEMBRE

# LOS SUEÑOS DE PEPE. MOVIMIENTO 2052

### *Pablo Trobo (Uruguay, 86'. 2024)*

A sus 90 años, **José Mujica** recorre el mundo compartiendo su historia de vida y sus ideas, tras haber pasado de preso político durante 12 años a presidente de Uruguay. Un documental de **Movimiento 2052** sigue sus viajes, mostrando su pensamiento, su lucidez política y la influencia global de su mensaje. En un contexto de colapso climático y con la humanidad siguiendo un modelo depredador de desarrollo y consumo desmedido, el discurso de **Mujica** advierte sobre la necesidad de un cambio profundo hacia una sociedad más justa, solidaria y sostenible, con la esperanza de dejar un planeta mejor para las generaciones futuras.

**INTERVIENEN EN EL COLOQUIO**

**RAFA ALDAY**
Militante ecologista, licenciado en Ciencias Físicas, técnico en comunicación y participación pública sobre el cambio climático.

**LOREA FLORES COMPAINS**
Licenciada en Biología, coordinadora de Greenpeace en Navarra y militante ecofeminista.

**JULEN REKONDO**
Miembro de la Fundación Clima/Klima Fundazioa. Técnico y divulgador ambiental. Químico.

## MIÉRCOLES 12 NOVIEMBRE

# MARIPOSAS NEGRAS

### *David Baute (España, 83'. 2024)*

El cambio climático impacta en las vidas de **Tanit**, **Valeria** y **Shaila**, tres mujeres de puntos muy distintos del planeta, pero con algo en común: las tres lo pierden todo por el efecto del calentamiento global y se van forzadas a migrar. Esta película narra sus historias, su lucha por no desaparecer pese a que su lugar de origen ya no exista. Vidas que, como las de miles de personas que sufren las consecuencias del calentamiento global, merecen ser contadas.

**INTERVIENE EN EL COLOQUIO**

**ANI URRETAVIZCAYA LOINAZ**
Licenciada en Pedagogía con amplia experiencia en el ámbito de la educación formal y para la transformación social. Desde 2006 trabaja como Técnica de educación formal en Alboan Navarra, donde ha impulsado proyectos educativos, elaboración de material didáctico, formaciones a profesorado y procesos de sensibilización en torno a la ciudadanía global, las migraciones y los derechos humanos. Su trayectoria combina la docencia y el voluntariado, tanto en el ámbito local como internacional, con una sólida vocación por la justicia social, la cooperación y la inclusión.

# PROGRAMA

## 10/11

19:30h · 6€

### LA VOZ DE HIND

de Kaouther Ben Hania

*Invitada: Lidón Soriano*

## 11/11

17:15h · Gratuita

### CORTOMETRAJES INDIFEST

**RESISTENCIAS INDÍGENAS**

*Invitado: Mikel Berraondo*

19:30h · 6€

### EL SENDERO AZUL

de Gabriel Mascaro

*Invitadas: Maite Velasco García y Cristina Serantes Castro*

## 12/11

17:15h · Gratuita

### CORTOMETRAJES INDIFEST

**EN FEMENINO Y PLURAL**

*Invitado: Mikel Berraondo*

19:30h · 6€

### CIUDAD SIN SUEÑO

de Guillermo Galoe

*Invitado: Guillermo Galoe*

## 13/11

19:30h · 6€

### BELÉN

de Dolores Fonzi

*Invitada: Luciana Peker*

## 14/11

17:15h · Gratuita

### NAPARZINEKMØ

**UXINA**

de Lucía Ezker

*Invitada: Lucía Ezker*

**LA CASA DE ANA**

de Iker Oiz

*Invitado: Iker Oiz*

**YOUR OWN BOSS**

de Álvaro Guzmán Bastida

*Invitado: Álvaro Guzmán Bastida*

19:30h · 6€

### LES INVERTUEUSES (LAS INMORALES)

de Chloé Aïcha Boro

*Invitadas: Fátima Djarra y Farmata Watt*




**LUNES 10 NOVIEMBRE**



**GENOCIDIO EN GAZA**

**SESIÓN 19:30h / 6,00€**

# LA VOZ DE HIND

***Kaouther Ben Hania (Túnez-Francia, 89'. 2025)***

## INVITADA

**LIDÓN SORIANO.** Licenciada y Doctora en Ciencias de la Educación Física y el Deporte, también tiene los grados de Fisioterapia, Magisterio y Enfermería, carrera en la que, además, es profesora de Emergencias Sanitarias en la escuela sanitaria de Navarra. Lleva más de 20 años compaginando su tarea docente, asistencial e investigadora con su actividad solidaria, colaborando con una ONG de salud en Palestina y ha coordinado 17 delegaciones tanto a los territorios palestinos ocupados como a Israel, teniendo un amplísimo conocimiento del conflicto tanto en el plano académico como vivencial.

## SINOPSIS

29 de enero de 2024. Los voluntarios de la Media Luna Roja reciben una llamada de emergencia. Una niña de 6 años está atrapada en un coche bajo fuego en Gaza, suplicando ser rescatada. Mientras intentan mantenerla en la línea, hacen todo lo posible por enviarle una ambulancia. Su nombre, **Hind Rajab**.

**KAOUTHER BEN HANIA** (Sidi Bouzid, 1977). Directora y guionista tunecina, una de las voces más destacadas del cine árabe contemporáneo. Formada en la Fémis de París, su filmografía explora las tensiones entre libertad, religión y género. Ha sido nominada dos veces al Óscar (por EL HOMBRE QUE VENDIÓ SU PIEL, 2020 y LAS CUATRO HIJAS, 2023).

## PREMIOS

Premio a la Mejor Dirección del Festival de Cannes (Sección Oficial, 2024)
Gran Premio del Jurado del Festival de Venecia (2025)
Premio del Público, Premio Agenda 2030 Euskadi Basque Country del Festival Internacional de Cine de San Sebastián (2025)
Mención Especial del Jurado de Sarajevo Film Festival (2024)

## SESIÓN 17:15h / GRATUITA

**RESISTENCIAS INDÍGENAS**



### THE WITNESSES OF THE DEVIL'S ANGEL

*Dedetria Holyri, 13 min, 2024*

Una joven, Feni, y dos jóvenes, Hendrik y Riko, miembros de un equipo de documental, investigan a un policía corrupto sospechoso de colaborar con un jefe de la minería ilegal.



### WITNESS: ARCTIC INDIGENOUS VOICES

*Ashley Qilavaq-Savard, Carmen Kuptana, Eriel Lugt, Jennifer Kilabuk, Johannes Vang, Marc Fussing Rosbach, Princess Daazhraii Johnson, 21 min, 2024*

El corto captura cinco historias íntimas de comunidades indígenas del Ártico en la primera línea del cambio climático.



### DEFENDIENDO AL YASUNÍ EN CARAVANA

*Edison Muenala Muenala, 11 min, 2024*

Esta crónica documenta cuatro momentos clave de la "Caravana por el Yasuní SI y Punto" en Ecuador, que promovió el «Sí» en la Consulta Popular sobre la explotación del bloque ITT.



### RÍOS LIBRES PARA LA VIDA

*Olmedo Carrasquilla Aguila, 31 min, 2024*

El pueblo indígena Ngäbe Buglé y los campesinos iniciaron una fuerte lucha contra el Plan Puebla Panamá PPP cuya matriz es la implementación del Sistema de Interconexión Eléctrica para América Central SIEPAC.

**INVITADO MIKEL BERRAONDO**, socio en Atolónica. Asesor del Gobierno de Navarra sobre derechos humanos y convivencia. Asesor de la AECID sobre empresas y derechos humanos. Lleva más de 25 años trabajando con pueblos indígenas. Actualmente es abogado de un grupo de comunidades indígenas de Salinas grandes en Argentina en su demanda contra el Estado por la minería de litio y acompaña a organizaciones Wayuu en procesos de ejercicio de DDHH.




**MARTES 11 NOVIEMBRE**



**SESIÓN 19:30h / 6,00€**

**EDADISMO**

# EL SENDERO AZUL

***Gabriel Mascaro (Brasil, 86'. 2025)***

## INVITADAS

**MAITE VELASCO GARCÍA** y **CRISTINA SERANTES CASTRO**, integrantes de la Comisión de Cultura de la Asociación Pacto por la Persona Mayor San Juan-Donibane.

## SINOPSIS

**Tereza**, de 77 años, ha vivido siempre en una pequeña ciudad industrial de Brasil. Un día recibe una notificación oficial del gobierno para trasladarse a una colonia remota, creada para que los jubilados pasen sus "últimos años" y así dejar espacio a los más jóvenes para que sigan siendo plenamente productivos. Pero en lugar de aceptar este destino impuesto, **Tereza** se rebela y decide embarcarse en un viaje transformador por el Amazonas para cumplir un último deseo antes de que le arrebaten su libertad. Esto marcará su vida para siempre.

**GABRIEL MASCARO** (Recife, 1983). Cineasta brasileño. Entre sus trabajos, figuran VIENTOS DE AGOSTO (2014) que recibió una mención especial en Locarno y BOI NEON (2015), incluida en el 'top ten' del año por *The New York Times*, con la que conquistó el premio especial del jurado en Venecia. Con DIVINO AMOR (2019) compitió en Sundance y en la sección Panorama del Festival de Berlín. Sus películas han cosechado medio centenar de premios internacionales y en 2016 el Lincoln Center de Nueva York le dedicó una retrospectiva.

## PREMIOS

Oso de Plata Gran Premio del Jurado en el Festival de Berlín (2025)
Premio Diario Berliner Mongenpost a la mejor película en el Festival de Berlín (2025)

## SESIÓN 17:15h / GRATUITA

EN FEMENINO Y PLURAL



### JIKIIRU'U KO'OOIKAA (LA MEMORIA DE LA AVISPA)

*Leiqui Uriana, 14 min, 2024*

Para el pueblo wayuu, los rituales de "encierro" marcan la primera menstruación de las mujeres y son esenciales para preservar la vida y garantizar la continuidad de su espiritualidad y cultura.



### MUJER DE BARRO

*Concepción Vásquez, 17 min, 2025*

En el crisol de barro y tradición, Rufina, una alfarera Ayuujk de Oaxaca, transforma su dolor en arte, desafiando el machismo y la violencia.



### VIENTRE DE LUNA

*Liliana K'an, 29 min, 2024*

En un pequeño lugar de los Altos de Chiapas, una joven tsotsil que dará a luz por primera vez, invoca la memoria de las mujeres que la precedieron para afrontar este momento.



### GUARDIANA DE VIDA

*Rolan Luis Tapayuri Salazar, 11 min, 2024*

Margarita, una anciana Shawi, mantiene viva una de las tradiciones más sagradas de su pueblo: traer nuevas vidas al mundo.

**INVITADO MIKEL BERRAONDO**, socio en Atolónica. Asesor del Gobierno de Navarra sobre derechos humanos y convivencia. Asesor de la AECID sobre empresas y derechos humanos. Lleva más de 25 años trabajando con pueblos indígenas. Actualmente es abogado de un grupo de comunidades indígenas de Salinas grandes en Argentina en su demanda contra el Estado por la minería de litio y acompaña a organizaciones Wayuu en procesos de ejercicio de DDHH.






## MIÉRCOLES 12 NOVIEMBRE

**SESIÓN 19:30h / 6,00€**

**DISCRIMINACIÓN, PUEBLO GITANO**

# CIUDAD SIN SUEÑO

***Guillermo Galoe (España, 97'. 2025)***

**INVITADO**

**GUILLERMO GALOE**, director de la película.

**SINOPSIS**

**Toni**, un chico gitano de 15 años, vive en el asentamiento irregular más grande de Europa, a las afueras de Madrid. Orgulloso de pertenecer a una familia de chatarreros, sigue a su abuelo a todas partes. Pero los derribos se acercan a su parcela y su abuelo se niega a marcharse, sea cual sea el sacrificio. En oscuras noches sin electricidad, mientras las leyendas de su infancia cobran vida, **Toni** debe elegir: enfrentarse a un futuro incierto o aferrarse a un mundo que se desvanece.

**GUILLERMO GALOE** (Valencia, 1985). Director, guionista y fotógrafo. Formado en la ECAM y con experiencia en cine experimental, ha dirigido cortos premiados como SILENCIO BLANCO (2017) y LOS DÍAS SUMERGIDOS (2020). CIUDAD SIN SUEÑO es su primer largometraje de ficción.

**PREMIOS**

Premio Especial del Jurado del Festival Internacional de Cine de Bruselas 2025
Premio a la Mejor Película del Festival Internacional de Cine de Murcia (2025)
Premio SACD a Mejor Guion en la Semana de la Crítica de Cannes 2025




**JUEVES 13 NOVIEMBRE**



**SESIÓN 19:30h / 6,00€**

**CRIMINALIZACIÓN DEL ABORTO**

# BELÉN

***Dolores Fonzi (Argentina, 105´. 2025)***

## INVITADA

**LUCIANA PEKER**, es una reconocida periodista y escritora argentina, autora de los libros *Putita Golosa, por un feminismo del goce*; *Sexteame, amor y sexo en la era de las mujeres deseantes*; o *La revolución de las hijas* y *¿El amor es o se hace?*, ambos traducidos al francés. Es columnista en Infobae, ElDiarioEs y La Diaria. En 2024, la CNN la destacó entre las 30 principales defensoras de los derechos de las mujeres y el colectivo LGBTIQ+ a nivel mundial, y entre las 5 más influyentes de América Latina. Amnistía Internacional la distinguió por su rol periodístico en la legalización del aborto en Argentina.

## SINOPSIS

Tucumán, Argentina, 2014; una joven ingresa en un hospital con un severo dolor abdominal, sin saber que está embarazada. Despierta esposada a la camilla y rodeada de policías. Es acusada de haberse provocado un aborto. Después de dos años en prisión preventiva, es sentenciada a ocho años de prisión por homicidio agravado por el vínculo. Una abogada tucumana luchará por su libertad junto al apoyo de miles de mujeres y organizaciones, quienes se unirán para cambiar el curso de la historia.

**DOLORES FONZI** (Buenos Aires, 1978). Actriz y directora argentina. Su carrera comenzó en televisión y cine con títulos como EL AURA (2005), TRUMAN (2015) y LA CORDILLERA (2017). Su debut como directora, BLONDI (2023), fue aclamado por la crítica y premiado en múltiples festivales. BELÉN es su segundo largometraje como realizadora.

## PREMIOS

Premio del público del Festival de Cine Latinoamericano de Biarritz (2025)
Concha de Plata a la mejor interpretación de reparto (Camila Plaate), Premio RTVE – Otra Mirada del Festival Internacional de Cine de San Sebastián (2025)

# NAPAR ZINEKMO

## VIERNES 14 NOVIEMBRE

NAPAR
IKUSENTZUNEZKOEN EKOIZPEN NAPARRA
PRODUCCIÓN AUDIOVISUAL NAVARRA

SESIÓN 17:15h / GRATUITA

CINEASTAS LOCALES



### UXINA

***De Lucía Ezker (España, 22'. 2025)***

Febrero, 1894. Francia. Mientras fuera sopla el viento, en una humilde habitación de Mauleón, un grupo de jóvenes alpargateras del Valle de Salazar se recogen y discuten. Las cosas están yendo mal, algunas no están dispuestas a aguantar allí. No pueden. Pero es febrero y para volver a casa, a Navarra, deben cruzar el Pirineo. Es un viaje muy peligroso. ¿Cuántas estarán dispuestas?

**LUCÍA EZKER** (Pamplona, 1985). Licenciada en Historia del Arte por la UPV-EHU y formada en cine en la Scuola Civica di Cinema de Milán. Ha desarrollado su carrera principalmente en la producción cinematográfica, además de escribir y dirigir sus propios proyectos. Desde 2021 también trabaja en teatro con la compañía navarra *Lore More* en *Trapu Zikinak* y junto a **Mikele Urroz** en *La montaña*.



### LA CASA DE ANA

***De Iker Oiz (España, 30'. 2025)***

En 2020, una familia de Castellar de la Frontera (Cádiz) recupera la casa que les fue arrebatada en 1936 durante la Guerra Civil. A través de sus muros, se entrelazan las huellas de Ana y su familia, y los ecos de tantas otras historias del pasado y el presente, revelando una memoria silenciada donde conviven el expolio, la represión y la resistencia

**IKER OIZ** (Pamplona, 1986). Cineasta y creador audiovisual independiente cuya obra combina dirección, montaje y dirección de arte para explorar lo colectivo desde una mirada social, política e íntima. Sus trabajos abordan temas como la memoria y la identidad, destacando los documentales ZAURIA(K) (2018), LA CASA DE ANA (2025) y CINEMA ACEDO (2025).



### YOUR OWN BOSS

***De Álvaro Guzmán Bastida (EEUU-España, 20'. 2024)***

Un repartidor de comida a domicilio y padre primerizo se esfuerza para compatibilizar sus obligaciones familiares en un ambiente hostil y con una aplicación que le lleva al límite.

**ÁLVARO GUZMÁN BASTIDA** (Pamplona, 1990) es un realizador, guionista y escritor que ha trabajado como productor para Al Jazeera y Netflix y firmado tres cortometrajes de ficción, premiados en festivales de todo el mundo.




**VIERNES 14 NOVIEMBRE**



**SESIÓN 19:30h / 6,00€**

**AUGE TOTALITARISMO YIHADISTA**

# LES INVERTUEUSES

## LAS INMORALES

***Chloé Aïcha Boro (Burkina Faso-Francia 97'. 2024)***

### SINOPSIS

En Burkina Faso, con el avance del yihadismo como telón de fondo, **Natie**, una adolescente que no se siente a gusto consigo misma, descubre por casualidad que su abuela se casó con un hombre al que no amaba. Al intentar reparar el destino roto de su abuela, **Natie** espera también encontrarse a sí misma. ¿Logrará emanciparse?

**CHLOÉ AïCHA BORO** Escritora, realizadora y guionista franco-burkinesa. Licenciada en Lenguas modernas, trabajó como periodista para la prensa escrita antes de envolverse en el mundo del documental con su primer largometraje, FARAFIN KO, UNE COUR ENTRE DEUX MONDES (2014). En 2019 obtiene el primer premio de documentales de FESPACO además del Premio especial ACP-UE por LE LOUP D'OR DE BALOLÉ, un tercer largometraje al encuentro de mineros en Ouagadougou. Su último documental, AL DJANAT, PARADIS ORIGINEL (2023).

### INVITADAS

**FÁTIMA DJARRA** y **FARMATA WATT**, activistas antirracistas, mediadoras interculturales en Médicos del Mundo y cofundadoras de *Flor de África*, *Kairaba* y *Dunia Musso*, asociaciones que trabajan por los derechos fundamentales de las mujeres y niñas de origen africanas. Ambas son referentes activistas contra la mutilación genital femenina y se dedican a la sensibilización y prevención en Navarra.

urte

# mundua eta giza eskubideak

2025eko azaroak 10-14
zinema erakusketa

golem baiona-n

DISEINUA: CARMEN ZUDAIRE

DL NA 2248-2025

Fundación IPES Fundazioa

golem

Fundación FELIPE RINALDI

Mugarik Gabe Nafarroa
ONG de Cooperación con el Sur

SUBVENCIONAN / DIRUZ LAGUNDU DUTE

Gobierno de Navarra
Nafarroako Gobernua

Ayuntamiento de Pamplona
Iruñeko Udala

# GOIZEKO HEZIKETA SAIOAK

***Erdi Mailako Ikasteak***

Saioetan, **filmak emango dira**, gaiari sarrera emateko eta eztabaida sortzeko ikasleekin, saiorako gonbidatutako pertsonen azalpenaren bidez.

**Saio guztiak 9:15etatik 11:45era izango dira.**



**AZAROAREN 10EAN, ASTELEHENA**

## LA VOZ DE HIND

***Kaouther Ben Hania (Tunisia-Frantzia, 89'. 2025)***

2024ko urtarrilaren 29a. Ilargi Gorriko boluntarioek larrialdietako dei bat jaso dute. 6 urteko neskato bat harrapatuta dago auto batean, suaren mende, Gazan, erreskata dezatela erregutzen. Linean mantentzen saiatzen diren bitartean, anbulantzia bat bidaltzeko ahal duten guztia egingo dute. Neskatoaren izena, **Hind Rajab**.

**SOLASALDIAN ESKU HARTUKO DU**

**LIDÓN SORIANO**

Lizentziaduna eta doktorea da Hezkuntza Fisikoaren eta Kirolaren Zientzietan, eta Fisioterapiako, Irakasle-ikasketetako eta Erizaintzako graduak ere baditu. Azken horrekin lotuta, gainera, Nafarroako osasun-eskolan Osasun Larrialdietako irakaslea da. 20 urtetik gora daramatza irakasle-lana, laguntza ematekoa eta ikertzekoa elkartasun-jarduerarekin bateratzen, Palestinan osasuneko GKE batekin lankidetzan arituz. 17 delegazio koordinatu ditu lurralde palestinar okupatuetara eta Israelera, eta gatazkaren gaineko ezagutza zabal-zabala du, bai arlo akademikoan, bai eta bizipenen arloan ere.

## AZAROAREN 11n, ASTEARTEA

# LOS SUEÑOS DE PEPE. MOVIMIENTO 2052

### *Pablo Trobo (Uruguai, 86'. 2024)*

90 urterekin, **José Mujica** munduan barrena dabil bere bizitzaren historia eta ideiak partekatzen, 12 urtean preso politiko izatetik Uruguaiko presidente izatera igaro eta gero. **Movimiento 2052**ren dokumental batek bidaia horiei jarraitzen die, Mujicaren pentsaera, argitasun politikoa eta bere mezuen eragin globala erakusten. Klima-kolapsoko testuinguru batean eta gizateriak garapen eta kontsumo neurrigabeko eredu predatzaile bati jarraitzen diola, **Mujica**ren arrazoibideak gizarte bidezkoago, solidarioago eta jasangarriago bateranzko aldaketa sakona behar dela ohartarazten du, etorkizuneko belaunaldientzako planeta hobea uzteko itxaropenarekin.

### SOLASALDIAN ESKU HARTUKO DUTE

**RAFA ALDAY**

Militante ekologista, Zientzia Fisikoetan lizentziaduna, klima-aldaketari buruzko komunikazioko eta partaidetza publikoko teknikaria.

**LOREA FLORES COMPAINS**

Biologian lizentziaduna, Greenpeaceren koordinatzailea Nafarroan eta militante ekofeminista.

**JULEN REKONDO**

Klima Fundazioko kidea, ingurumen-teknikaria eta -dibulgatzailea. Kimikaria.

## AZAROAREN 12an, ASTEAZKENA

# MARIPOSAS NEGRAS

### *David Baute (Espainia, 83'. 2024)*

Klima-aldaketak talka egin du **Tanit**, **Valeria** eta **Shaila**ren bizitzetan. Planetako toki desberdinetako hiru emakume dira, baina badute zerbait batera: denek galdu dute dena berotze globalaren ondorioz eta migratzera behartuta daude. Film honek beren historiak kontatuko ditu; beren jatorrizko lekua ez bada existitzen ere, ez desagertzeko egiten duten borroka. Berotze globalaren ondorioak pairatzen dituzten milaka pertsonenak bezala, kontatzea merezi duten bizitzak dira.

### SOLASALDIAN ESKU HARTUKO DU

**ANI URRETAVIZCAYA LOINAZ**

Lizentziaduna Pedagogian, eta eskarmentu handikoa hezkuntza formalaren eta gizarte-eraldaketarako hezkuntzaren esparruan. 2006az geroztik, Alboan Nafarroan lan egiten du hezkuntza formaleko teknikari, hezkuntza-proiektuak sustatzen, material didaktikoa egiten, irakasleei prestakuntza ematen eta sentsibilizazio-prozesuak gauzatzen herritartasun globalaren, migrazioen eta giza eskubideen inguruan. Bere ibilbideak irakaskuntza eta boluntariotza konbinatzen ditu, justizia sozial, lankidetza eta inklusioarekiko bokazio sendoa izanda.

# EGITARAUA

## 11/10

19:30h · 6€

### LA VOZ DE HIND

Kaouther Ben Haniarena

*Gonbidatua: Lidón Soriano*

## 11/11

17:15h · Dohainik

### INDIFEST FILM LABURRAK

**ERRESISTENTZIA INDIGENAK**

*Gonbidatua: Mikel Berraondo*

19:30h · 6€

### EL SENDERO AZUL

Gabriel Mascarorena

*Gonbidatuak: Maite Velasco García eta Cristina Serantes Castro*

## 11/12

17:15h · Dohainik

### INDIFEST FILM LABURRAK

**FEMENINOAN ETA PLURALEAN**

*Gonbidatua: Mikel Berraondo*

19:30h · 6€

### CIUDAD SIN SUEÑO

Guillermo Galoerena

*Gonbidatua: Guillermo Galoe*

## 11/13

19:30h · 6€

### BELÉN

Dolores Fonzirena

*Gonbidatua: Luciana Peker*

## 11/14

17:15h · Dohainik

### NAPARZINE KM0

**UXINA**

Lucía Ezkerrena

*Gonbidatua: Lucía Ezker*

**LA CASA DE ANA**

Iker Oizena

*Gonbidatua: Iker Oizena*

**YOUR OWN BOSS**

Álvaro Guzmán Bastidarena

*Gonbidatua: Álvaro Guzmán Bastida*

19:30h · 6€

### LES INVERTUEUSES (INMORALAK)

Chloé Aïcha Bororena

*Gonbidatuak: Fátima Djarra y Farmata Watt*




## AZAROAREN 10n, ASTELEHENA



**19:30ean / 6,00€**

**GAZAKO GENOZIDIOA**

# LA VOZ DE HIND

***Kaouther Ben Hania (Tunisia-Frantzia, 89´. 2025)***

### GONBIDATUA

**LIDÓN SORIANO.** Lizentziaduna eta doktorea da Hezkuntza Fisikoaren eta Kirolaren Zientzietan, eta Fisioterapiako, Irakasle-ikasketetako eta Erizaintzako graduak ere baditu. Azken horrekin lotuta, gainera, Nafarroako osasun-eskolan Osasun Larrialdietako irakaslea da. 20 urtetik gora daramatza irakasle-lana, laguntza ematekoa eta ikertzekoa elkartasun-jarduerarekin bateratzen, Palestinan osasuneko GKE batekin lankidetzan arituz. 17 delegazio koordinatu ditu lurralde palestinar okupatuetara eta Israelera, eta gatazkaren gaineko ezagutza zabal-zabala du, bai arlo akademikoan, bai eta bizipenen arloan ere.

### SINOPSIA

2024ko urtarrilaren 29a. Ilargi Gorriko boluntarioek larrialdietako dei bat jaso dute. 6 urteko neskato bat harrapatuta dago auto batean, suaren mende, Gazan, erreskata dezatela erregutzen. Linean mantentzen saiatzen diren bitartean, anbulantzia bat bidaltzeko ahal duten guztia egingo dute. Neskatoaren izena, **Hind Rajab**.

**KAOUTHER BEN HANIA** (Sidi Bouzid, 1977). Tunisiar zuzendari eta gidoilaria, Arabiako zinema garaikideko ahots nabarmenenetako bat. Parisko Fémisen prestakuntza hartuta, bere filmografiak askatasunaren, erlijioaren eta generoaren arteko tentsioak esploratzen ditu. Bitan izendatu dute Oscar sarietarako (EL HOMBRE QUE VENDIÓ SU PIEL, 2020, eta LAS CUATRO HIJAS, 2023).

### SARIAK

Zuzendari Onenaren saria, Cannesko Zinemaldian (Sail Ofiziala, 2024).
Epaimahaiaren Sari Handia, Veneziako Zinemaldian (2025).
Ikus-entzuleen Saria, Agenda 2030 Euskadi Basque Country Saria, Donostiako Nazioarteko Zinemaldian (2025).
Epaimahaiaren Aipamen Berezia, Sarajevo Film Festivalen (2024).

**17:15ean / DOHAINIK**

**ERRESISTENTZIA INDIGENAK**



## THE WITNESSES OF THE DEVIL'S ANGEL

*Dedetria Holyri, 13 min, 2024*

Feni neska gaztea eta Hendrik eta Riko mutil gazteak, dokumentaleko talde bateko kideak, legez kanpoko meatzaritzako buru batekin elkarlanean aritzearen susmagarria den polizia ustel bat ikertzen ari dira.



## WITNESS: ARCTIC INDIGENOUS VOICES

*Ashley Qilavaq-Savard, Carmen Kuptana, Eriel Lugt, Jennifer Kilabuk, Johannes Vang, Marc Fussing Rosbach, Princess Daazhraii Johnson, 21 min, 2024*

Artikoko komunitate indigenen bost istorio intimo hartzen ditu film laburrak, klima-aldaketaren lehen lerroan.



## DEFENDIENDO AL YASUNÍ EN CARAVANA

*Edison Muenala Muenala, 11 min, 2024*

Ekuadorko "Caravana por el Yasuní SI y Punto"ren lau une giltzarri dokumentatu ditu kronika honek. Karabana horrek baiezkoa sustatu zuen ITT blokearen ustiapenari buruzko herri-kontsultan.



## RÍOS LIBRES PARA LA VIDA

*Olmedo Carrasquilla Aguila, 31 min, 2024*

Ngäbe Buglé herri indigenak eta nekazariek borroka sendoa hasi zuten PPP Plan Puebla Panamáren aurka. Haren matrizea SIEPAC Erdialdeko Amerikarako Interkonexio Elektrikoko Sistema ezartzea da.

**INVITADO MIKEL BERRAONDO**, Atolónicako bazkidea. Nafarroako Gobernuaren aholkularia, giza eskubideen eta bizikidetzaren gaian. AECID agentziaren aholkularia, enpresen eta giza eskubideen gaian. 25 urtetik gora daramatza herri indigenekin lan egiten. Egun, Argentinan, Salinas Grandesko komunitate indigenen talde baten abokatua da, Estatuaren kontrako demandan, litioaren meatzaritzarengatik, eta wayu erakundeei lagun egiten die giza eskubideak gauzatzeko prozesuetan.

**AZAROAREN 11an, ASTEARTEA**



**19:30ean / 6,00€**

**ADINKERIA**

# EL SENDERO AZUL

***Gabriel Mascaro (Brasil, 86'. 2025)***




**GONBIDATUAK**

**MAITE VELASCO GARCÍA** eta **CRISTINA SERANTES CASTRO**, Donibane Adineko Pertsonen aldeko Ituna Elkarteko Kultura Batzordeko kideak.

**SINOPSIA**

**Tereza**, 77 urtekoa, Brasilgo industria-hiri txiki batean bizi izan da beti, baina egun batean gobernuaren jakinarazpen ofizial bat jasoko du, urruneko kolonia batera lekualdatzeko. Kolonia hori erretiratuek "azken urteak" igarotzeko sortua da, hartara, gazteei tokia uzteko, erabat emankor izaten jarraitzeko. Ezarritako patu hori onartu beharrean, ordea, Amazonasen bidaia eraldatzaile batean ontziratzea erabakiko du, askatasuna ebatsi aurretik azken nahia betetzeko. Horrek bere bizitza markatuko du betiko.

**GABRIEL MASCARO** (Recife, 1983). Brasildar zinemagilea. Bere lanen artean, VIENTOS DE AGOSTO (2014) dago, aipamen berezia jaso zuena Locarnon, eta BOI NEON (2015), *The New York Times*ek urteko hamar onenen artean sartua eta Venezian epaimahaiaren sari berezia eskuratua. DIVINO AMOR (2019) lanarekin Sundancen lehiatu zen eta Berlingo Zinemaldiko Panorama sailean. Bere filmek nazioarteko berrogeita hamar bat sari lortu dituzte, eta 2016an New Yorkeko Lincoln Centerrek atzerabegirako bat eskaini zion.

**SARIAK**

Zilarrezko Hartza Epaimahaiaren Sari Handia, Berlingo Zinemaldian (2025).
Berliner Mongenpost egunkariaren saria film onenari, Berlingo Zinemaldian (2025).

17:15ean / DOHAINIK

FEMENINOAN ETA PLURALEAN



## JIKIIRU'U KO'OOIKAA (LA MEMORIA DE LA AVISPA)

*Leiqui Uriana, 14 min, 2024*

Wayu herriarentzat, "itxialdiaren" errituek emakumearen lehen hilekoa markatzen dute eta funtsezkoak dira bizia babestu eta haien espiritualtasunaren eta kulturaren jarraipena bermatzeko.



## MUJER DE BARRO

*Concepción Vásquez, 17 min, 2025*

Buztinezko eta tradiziozko arragoan, Rufinak, Oaxacako Ayuujk eltzegileak, bere mina arte bihurtzen du, matxismoari eta indarkeriari aurre eginez.



## VIENTRE DE LUNA

*Liliana K'an, 29 min, 2024*

Chiapasko Gainetako toki txiki batean, tsotsil neska gazte bat lehen aldiz erdituko da, eta aurretik izan zituen emakumeen memoriari babesa eskatuko dio, une horri aurre egiteko.



## GUARDIANA DE VIDA

*Rolan Luis Tapayuri Salazar, 11 min, 2024*

Margaritak, shawi zaharrak, bere herriko tradizio sakratuenetako bat bizirik mantentzen du: bizi berriak munduratzea.

**INVITADO MIKEL BERRAONDO**, Atolónicako bazkidea. Nafarroako Gobernuaren aholkularia, giza eskubideen eta bizikidetzaren gaian. AECID agentziaren aholkularia, enpresen eta giza eskubideen gaian. 25 urtetik gora daramatza herri indigenekin lan egiten. Egun, Argentinan, Salinas Grandesko komunitate indigenen talde baten abokatua da, Estatuaren kontrako demandan, litioaren meatzaritzarengatik, eta wayu erakundeei lagun egiten die giza eskubideak gauzatzeko prozesuetan.




**AZAROAREN 12an, ASTEAZKENA**



**19:30ean / 6,00€**

**DISKRIMINAZIOA, IJITO HERRIA**

# CIUDAD SIN SUEÑO

***Guillermo Galoe (Espainia, 97'. 2025)***

**GONBIDATUA**

**GUILLERMO GALOE**, filmaren zuzendaria.

## SINOPSIA

**Toni**, 15 urteko gazte ijitoa, Europako kokaleku irregular handienean bizi da, Madrilen aldirietan. Txatar-biltzaileen familia bateko kide izateaz harro, aitonarekin ibiltzen da beti. Eraiste-lanak bere lursailera gerturatzen ari dira, ordea, eta aitonak ez du joan nahi, sakrifizioa edozein izanda ere. Elektrizitaterik gabeko gau ilunetan, haurtzaroko elezaharrak berpizten diren bitartean, **Toni**k aukera egin beharko du: etorkizun zalantzagarri bati aurre egin edo desegiten doan mundu bati gogor heldu.

**GUILLERMO GALOE** (Valentzia, 1985). Zuzendaria, gidoilaria eta argazkilaria. ECAM eskolan prestakuntza hartuta eta esperientzia izanda zinema esperimentalean, zenbait film labur saritu zuzendu ditu, adibidez, Silencio blanco (2017) eta Los días sumergidos (2020). Ciudad sin sueño fikziozko lehen film luzea du.

## SARIAK

Epaimahaiaren Sari Berezia, Bruselako 2025eko Zinemaldian.
Film Onenaren Saria, Murtziako Nazioarteko Zinemaldian (2025).
SACD Saria gidoi onenari, Cannesko Kritikaren Astean (2025).




## AZAROAREN 13an, OSTEGUNA



**19:30ean / 6,00€**

**ABORTUAREN KRIMINALIZAZIOA**

# BELÉN

***Dolores Fonzi (Argentina, 105'. 2025)***

### GONBIDATUA

**LUCIANA PEKER**, argentinar kazetari eta idazle ospetsua da, zenbait libururen egilea, adibidez, *Putita Golosa, por un feminismo del goce*, *Sexteame, amor y sexo en la era de las mujeres deseantes*, *La revolución de las hijas* eta *¿El amor es o se hace?*, azken bi horiek frantsesera itzuliak. Zutabegilea da Infobae, ElDiarioEs eta La Diarian. 2024an, CNNk emakumeen eta LGTBIQ+ kolektiboaren eskubideen 30 defendatzaile nagusien artean sartu zuen mundu mailan, eta Latinoamerikako itzal handieneko bosten artean. Argentinan abortua legeztatzean izandako kazetari-eginkizunarengatik nabarmendu zuen Amnesty Internationalek.

### SINOPSIA

Tucuman, Argentina, 2014. Gazte bat ospitaleratu dute, min abdominal latza duelako, haurdun dagoela jakin gabe. Esku-oheari eskuburdinekin lotuta dagoela esnatu da, poliziakideek inguratuta. Bere buruari abortua eragiteaz salatu dute. Prebentziozko espetxeratzean bi urte igaro eta gero, zortzi urteko espetxealdira zigortu dute, loturak larriagotutako homizidioarengatik. Tucumango abokatu batek neskaren askatasunaren alde borroka egingo du, milaka emakumeren eta erakundeen babesarekin, historiaren bilakaera aldarazteko batuko baitira.

**DOLORES FONZI** (Buenos Aires, 1978). Argentinar aktore eta zuzendaria. Ibilbidea telebistan eta zineman hasi zuen, besteak beste, izenburu hauekin: EL AURA (2005), TRUMAN (2015) eta LA CORDILLERA (2017). Zuzendari-lanetan egin zuen debuta, BLONDI (2023), kritikariek txalotu zuten, eta sariak lortu zituen hainbat jaialditan. Errealizadore-lanetan egin duen bigarren film luzea da BELÉN.

### SARIAK

Publikoaren Saria, Biarrizko Latinoamerikako Zinemaldian (2025).
Zilarrezko Maskorra aktoreen zerrendako interpretazio onenari (Camila Plaate), RTVE-Beste Begirada Saria, Donostiako Nazioarteko Zinemaldian (2025).

# NAPAR ZINEKMO

AZAROAREN 14ean OSTIRALA

NAPAR
IKUSENTZUNEZKOEN EKOIZPEN NAPARRA
PRODUCCIÓN AUDIOVISUAL NAVARRA

17:15ean / DOHAINIK

BERTAKO ZINEMAGILEAK



## UXINA

***Lucía Ezkerrena (Espainia, 22'. 2025)***

1894ko otsaila. Frantzia. Kanpoan haizea dabilen bitartean, Mauleko gela xume batean, Zaraitzuko espartingile gazte batzuk batu dira eta eztabaidan ari dira. Gauzak gaizki doaz, eta batzuk ez daude han jarraitzeko prest. Ezin dute. Baina otsaila da, eta etxera itzultzeko, Nafarroara, Pirinioak zeharkatu behar dituzte. Oso bidaia arriskutsua da. Zenbat egongo dira prest?

**LUCÍA EZKER** (Iruña, 1985). Artearen Historian lizentziaduna EHUn, zinema ikasi zuen Milango Scuola Civica di Cineman. Nagusiki, ekoizpen zinematografikoaren arloan lan egin du, eta bere proiektuak idatzi eta zuzendu ere egin ditu. 2021az geroztik, antzerkian ere lan egiten du, Nafarroako *Lore More* konpainiarekin, *Trapu zikina*k lanean, eta **Mikele Urrozekin**, *La montaña* antzezlanean.



## LA CASA DE ANA

***Iker Oizena (Espainia, 30'. 2025)***

2020an, 1936ko gerran kendu zioten etxea berreskuratu zuen Castellar de la Fronterako (Cádiz) familia batek. Hormen bitartez, Anaren eta haren familiaren aztarnak korapilatuko dira, eta bai iraganeko eta oraineko beste hainbeste istorioren oihartzunak ere, indarrezko ebastea, errepresioa eta erresistentzia elkarrekin bizi diren memoria isilarazia agerian gelditu.

**IKER OIZ** (Iruña, 1986). Zinemagile eta ikus-entzunezko sortzaile independentea. Bere lanak zuzendaritza, muntaketa eta arte-zuzendaritza konbinatzen ditu, kolektiboa esploratzeko begirada sozial, politiko eta intimo batetik. Bere lanek hainbat gairi heltzen diete, hala nola memoriari eta identitateari, eta ZAURIA(K) (2018), LA CASA DE ANA (2025) eta CINEMA ACEDO (2025) dokumentalak nabarmendu behar dira.



## YOUR OWN BOSS

***Álvaro Guzmán Bastidarena (AEB-Espainia, 20'. 2024)***

Etxez etxe janaria banatzen duen eta lehen aldiz haurra izan duen aita bat familia-betebeharrak bateragarri egiteko ahalegintzen da, etsai-giro batean eta muturreraino eramaten duen aplikazio batekin.

**ÁLVARO GUZMÁN BASTIDA** (Iruña, 1990) errealizadorea, gidoilaria eta idazlea da. Ekoizle-lanetan aritu da Al Jazeera eta Netflixerako, eta fikziozko hiru film labur egin ditu, mundu osoko jaialdietan sariak eskuratu dituztenak.




## AZAROAREN 14ean OSTIRALA



**19:30ean / 6,00€**

**TOTALITARISMO JIHADISTAREN GOREN UNEA**

# LES INVERTUEUSES

## IMMORALAK

***Chloé Aïcha Boro (Burkina Faso-Frantzia 97'. 2024)***

### SINOPSIA

Burkina Fason, testuinguru moduan jihadismoa aurrera egiten ari dela, **Natie** bere buruarekin gustura ez dagoen nerabea da, eta halabeharrez jakingo du amona maite ez zuen gizon batekin ezkondu zela. Amonaren patu hautsia konpontzen saiatzean, **Natie**k bere burua aurkitzea ere espero du. Lortuko du burujabetzea?

**CHLOÉ AïCHA BORO** Frantzia eta Burkina Fasoko idazlea, errealizadorea eta gidoilaria. Lizentziaduna Hizkuntza Modernoetan, kazetari-lana egin zuen prentsa idatzirako, dokumentalen arloan murgildu aurretik bere aurreneko film luzearekin, FARAFIN KO, UNE COUR ENTRE DEUX MONDES (2014). 2019an, FESPACOko dokumentalen lehen saria lortu zuen eta bai ACP-UE Sari berezia ere, LE LOUP D'OR DE BALOLÉ hirugarren film luzearengatik. Uagaduguko meatzariei buruzkoa da. Bere azken dokumentala AL DJANAT, PARADIS ORIGINEL (2023) da.

### GONBIDATUAK

**FÁTIMA DJARRA** eta **FARMATA WATT**, aktibista antirrazistak, kulturarteko bitartekariak Munduko Medikuak GKEan eta *Flor de África*, *Kairaba* eta *Dunia Musso* elkarteen sortzailekideak. Elkarte horiek Afrikako jatorria duten emakumeen eta neskatoen oinarrizko eskubideen alde lan egiten dute. Biak ala biak erreferentziazko aktibistak dira emakumeen genitalen mutilazioaren kontra eta Nafarroan sentsibilizazioan eta prebentzioan aritzen dira.